

# Hitzaurre gisa

**Belen Uranga**

*Soziolinguistika Klusterra*

b.uranga@soziolinguistika.org



BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA-REN ZENBAKI BIKOITZ HAU zuzendari berriaren albistearekin zabaldu nahi dugu, Iñaki Martínez de Lunak jaso baitu izendapen hori Argitalpen Batzordearen eta Soziolinguistika Klusterraren oniritzi osoarekin. Iñaki Martínez de Lunaren ekarpena euskal soziolinguistika arloan inork gutxik ezbaian jarriko duen tamainakoa da, eta gaur egun are beharrezkoa ikusten duguna gainera.

Aldizkariak esker oneko hitzak besterik ez ditu aurretiaz izan dituen bi zuzendarientzat, Jose Luis Alvarez Enparantzarentzat eta Maria-Jose Azurmendirentzat, eta ziur gara erronka handizat hartu duela zuzendari berriak bere eginkizuna, aurrekariok begi bistan dituelako. 2007. urtetik gaur arte aldizkariak ez du arduradun hori izateko aukerarik izan. Halere, Argitalpen Batzordearen, koordinatzailearen eta laguntzaileen arteko elkarlanari esker etenik gabe ateratzeko mo-

duan izan da. Horregatik, aurrerantzean lan are interesgarriagoa eskaintzeko aukera izango dugula ziur gaude.

Eginkizun horretan, beraz, gure desiorik hoberena, eta lanerako prestutasun osoa erakutsi nahi diogu argitalpen batzordeko kideek, laguntzaileek eta koordinatzaile honek ere.

Iñaki Martínez de Lunaren zuzendari ibilbide honi hasiera aldizkariak bere kreditu-atalean ageri duen ideia honekin emango diogu: "Aldizkari honen hartzaileak euskararen berreskurapen eta normalizazio lanetan diharduten euskaltzale, teknikari, irakasle edo unibertsitateko ikerlariak dira. Aldizkariaren helburu nagusia eragile hauentzat bere jarduera esparruan lagungarri izango zaien informazioa bildu eta hedatzea da".

Eginkizun horri bete-betean lotu zaio zenbaki bikoitz hau, azken urteotako ikerkuntza soziolinguistikoari begirada eskainiz, haren izaera eta bilakaera ezagutzeko. Ar-

gitalpen Batzordeak zenbaki honetan argitaratutako artikuluan aipatzen duen moduan (Martínez de Luna et al.), ez da lan hain erraza soziolinguistika-esparruaren mugak finkatzea. Nolanahi ere, BAT aldizkariak egoki ikusi du ahalegin berezia egitea helburu horrekin: euskal soziolinguistika ikerkuntzaren azken urteotako begirada eskaintzea.

Horretarako, argitalpen batzordeak ikerketa soziolinguistikoaren fitxa tekniko bat<sup>1</sup> erabili du, ahalik eta datu-bilketa zabalena egiteko. Euskal Herriko unibertsitateetako fakultate desberdinetako kideak gonbidatu ditugu, Herri Administrazioako teknikariak parte-har dezaten animatu eta gizarteko hainbat erakunde tekniko inplikatu. Hitz aurre honetan eskerrak eman nahi dizkiegu datu-bilketa horretan euren lanaren berri eman nahi izan duten ikerlari guzti-guztiei<sup>2</sup>.

**Argitalpen Batzordeak** sinatzen duen artikulua aipatzen duen bezala, nolakoa den euskal ikerkuntza soziolinguistikoa jakin nahi izan dugu; zer pisu duen, zertaz diharduen, ikerketa mota ezberdinak non egiten diren eta abar. Euskarari lotutako ikerketaren paradigma zientifikoan —akademikoan edo aplikatuan— kokatzen diren ahaleginak aintzat hartu ditugu, horiek hizkuntzaren *corpusari* zein *statusari* zuzenduak direlarik. Zentzu horretan aipagarria da “ikerkuntzaren funtsa diren eremu akademiko, herri-administrazio eta herrigintzarenak gogotsu dihardutela euskararen normalizazioari hain beharrezko zaion ezagutza hornitzeko ahaleginetan”. Hala ere, argi ikusi da gabezi garrantzizkoa dagoela egiten denaren inguruko informazioa partekatzerakoan. Zentzu horretan, akaso, proposamen interesgarria izan daiteke euskal soziolinguistikan nor eta zer den guztia bilduko duen gune egoki bat egon dadin sustatzea.

Euskal soziolinguistikaren ikerkuntzaren gainean bere ikuspegia ekarri du **Patxi Juaristik** bere artikuluan. Denbora-tarte luzeagoa hartuz —gutxi gora behera azken berrogei urtekoa— irudi antolatua eskaini nahi izan du, kanpoko eragin akademikoek aztertuz eta euskararen normalizazio-prozesuan erabakigarriak direnak azpimarratuz. Esate baterako, esan daiteke euskal soziolinguistikaren ikerketan euskara-gaitasunarekin lotuta daudenak edo esparru desberdinetako erabileraren ezaugarriak aztertzen dituzten lanak gailentzen direla, eta horietan eragiten duten aldagai desberdinen azterketak. Hizkuntza-jarrerak, hizkuntza-politikak eta hizkuntza-plangintzak ere leku berezia hartu dute euskal soziolinguistika ikerketa-esparruan. Nolanahi ere, hemen aipatzen ditugun hauek gutxi batzuk besterik ez dira, egileak 17 lerro bereizi baititu euskal soziolinguistikaren esparruan.

Bilketa-lan honetan berariazko lekua hartu dute Hizkuntza Plangintza Graduondokoaren baitan (HIZNET) azken urteotan egin diren ikerketa-lanak. Ezaugarri espezi-fikoak dituzten arren, gure iritzia da urteen poderioz, gero eta lan interesgarriagoak eta egitura sendoagoak egiten direla graduondoko horretan. **Saioa Labakak** graduondoko horren inguruko hausnarketa ekarri du aldizkarira 13 urte abian jarri zenetik izan duen bilakaera erakusteko. 2009-2013 urte bitarteko ikerketa-lanak hiru gai-multzotan sailkatu ditu: udalerrri edo hiriburuetako hizkuntza-egoeren azterketak, lan-mundua euskalduntzeko plangintzak, eta gazteen eta euskararen arteko harremana.

Ikuspegi orokorrari, Kataluniako ekarpena gehitu nahi izan diogu, hain zuzen ere, Xavier Vilak 2012. urtean argitaratu zuen

artikulu baten euskarazko ordaina eskura jarri BAT Aldizkariko irakurleari. Interesgarria da artikulu ikerkuntza soziolinguistikoa egungo garapen-egoeraren berri ematen duelako. Paradigma teoriko eta metodologiko bateratu bat eskaintzea oso zaila dirudien arren, hizkuntza gizartean ikertzen duten diziplina guztien zenbait ezaugarri identifikatu ditu: hizkuntzaren sistemaz gain haren erabilera, ideologiak eta gaitasunak ere kontuan hartzen dituztenak.

Aldizkariaren bigarren partean, interesgarri jo ditugun hainbat ikerketaren berri zuzena eman nahi izan dugu, horretarako ikerlariei beraiei artikulu bana eskatuz. Atal honetan bildu ditugu bost artikulu soziolinguistika-ikerkuntzaren esparru anitzaren ispilu direlakoan.

Arrue proiektuaren inguruan **Pablo Suberbiolak**, **Iñaki Martínez de Lunak** eta **Mikel Zalbidek** proiektu horren inguruko datuak eskaintzen dituzte artikulan. Arrue EAEko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera aztertzea helburu duen proiektua da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Soziolinguistika Klusterraren arteko lankidetzaz aritzen da 2007. urtetik aurrera. Aipatzekoa da 2010. urtean Hezkuntza Saileko ISEI-IVEIk egiten duen EAEko hezkuntzaren ebaluazio-sisteman ikasleen hizkuntza-erabilerrari buruzko datu-bilketa txertatu zela. Horrela, EAEko ikastetxe guztietan eginiko Ebaluazio Diagnostikoaren bitartez LMH4ko eta DBH2ko ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerei buruzko datuak bildu ziren. Datu horien analisi-txostena 2012. urtearen amaieran zabaldu zen, baina artikulu honetan azterketa hura egiteko baliatutako ikuspegi eta erreferentzia teorikoen deskribapena

eskaintzen da. Gainera, artikuluan datuen azterketaren gainean hainbat ikerlarik eta adituk eginiko analisisien eta proposamenen erreferentzia ere eman da.

**Josune Zabalak** Tolosako ikastetxe guztietan Soziolinguistika Klusterra bideratzen ari den ekintza-ikerketa azaltzen du bere artikulan. Ikerketaren helburua Bigarren Hezkuntzako ikasleen ahozko hizkuntza (H1 edo H2 euskara) hobetzea eta horretan laguntzen duten metodologia didaktikoak bilatzea da. Horretarako, hizkuntzaren ikuspegi interakzionista eta soziodiskurtsiboa oinarri hartuta, zortzi Sekuentzia Didaktiko diseinatu dira ahozko hizkuntza ikastetxeetan lantzeko. Horrez gain, ikasleen ahozko ekoizpenak aztertu dira jakiteko zer-nolako garapena izan duten materialaren esku hartzeen eraginez. Artikulan, beraz, azken hiru urtetako egitasmo horren zehaztasunak erakusten dira.

“Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: ‘nolako euskalduna naiz?’” artikuluak Ane Ortega, Estibaliz Amorrortu, Jone Goirigolzarri, Jacqueline Urla eta Belen Uranga burutzen ari diren ikerketaren berri ematen du. Ikerketan euskal hiztun berritza hartu dira euskara familia-giroa ez den beste modu batean ikasi dutenak. Euskararen etorkizunaren ikuspegitik, talde horren ezaugarriak ezagutzea erabakigarria izan daiteke, eta horregatik euskararekiko dituzten jarrerak eta motibazioak aztertu nahi dira; euren burua euskal hiztun benetakotzat duten eta hizkuntza erabiltzeari edota transmititzeari buruz zein uste dituzten. Artikulan ikerketaren behin-behineko hainbat emaitza eskaini dira, hizkuntza-identitateari eta hiztun legitimoaren pertzepzioari erreferentzia eginez, besteak beste.

Ondorengo artikuluak aurkezten duen ikerketak badu lehenago aipatu ditugun bi-

rekin nolabaiteko lotura: ahozko gaitasunaren egokitasuna eta hiztun berrien arteko harremanetan zer-nolako pisua hartzen duten hizkuntza-erroreek aintzat hartzen baitu. **Garbiñe Urreiztik eta Pablo Sotése**k ikerketa Nafarroako D hizkuntza ereduko Batxiller-goko ikasleen euskarazko ahozko hizkuntza-erroreak aztertu dira, ama-hizkuntza euskara duten ikasleen artean batetik, eta ez dutenen artean, bestetik. Ikasleek, hizkuntza honetan komunikatzeko gaitasuna duten arren, ahozko jardunaren zuzentasunean islatzen den hobetzeko atala ere erakusten du ikerketak.

Ezaugarri oso desberdinak ditu **J. Inazio Markok** UEMAren inguruan egin duen ikerketak. Erakundearen hogeigarren urteurrenarekin batera udalerrri euskaldunen mankomunitateak analisi eta gogoeta prozesu bat ireki zuen bere sorrera eta egindako ibilbidea aztertzeke eta etorkizunera proiektatzeko. Prozesuaren baitan sistematizazioaren analisiak, talde fokalak, elkarrizketak, datu-bilketak eta datu-analisiak egin ziren. Hori da, hain zuzen, artikulua honetan aurkezten dena: planteamendu metodologikoa eta azterketaren emaitza nagusiak.

Aldizkariaren hirugarren partera, GU-REAN atalera, bi artikulua bildu ditugu. Alde batetik, aldizkari honen argitalpen batzordekide den Maria-Jose Azurmendik eginiko gogoeta-saioa, eta bestetik, Garabide Elkar-teak nazioarteko garapen-lankidetzaren hizkuntza-ibilbidearen berri ematen duena.

“XXI. mendeko Euskal Herria euskaldun!: Eta horretan, nik zer?” izenburupean **Maria-Jose Azurmendik** hausnarketa egin du euskararen etorkizunean norbanakoaren arduraren, inplikazioaren eta eginkizunaren gakoak azpimarratuz. Nola sustatu norba-

nakoek euren diagnostikoa egin dezaten? Eta diagnosi horren arabera, nola eragin euskararen aldeko inplikazioa sendotzeko? Gogoeta hori BAGERA Elkar-teak Donostian, 2013an antolaturiko Jardunaldian emandako hitzaldian oinarritzen da.

Zenbaki monografiko bikoitz hau ixteko **Garabide Elkar-tearen** ikuspegitik lankidetzaren linguistiko-identitarioaren inguruko hausnarketa eskaintzen da. Ezaguna da Euskal Herrian Garabide Elkar-teak munduko hizkuntza minorizatu hainbatekin daraman lankidetzajardura. Garapen-lankidetzaren egin ohi duten beste erakundeengandik bereiziz, herrien identitatearen eta hizkuntzaren erreperazioaz arduratuta dago ezerean gaineratik Garabide Elkar-tea. Haren ikuspegitik gurea bezalako herri batek “garapenerako lankidetzaren egin behar duen ariketa nagusia hegoaldeko herriekin parteka ditzakeen esperientzia eta prozesu funtsezkoetan zubiak sortzea da”. Eta horretan badugu gure artean zer konpartitua: esperientzia. Eskarmentu horretatik eratorritako ezagutza konpartitzea, hainbat hizkuntza gutxituren biziberritze-estrategiak sendotzeko lagungarri izan daiteke.

Oharra: Zenbaki hau osatzeko bildu ditugun ikerketa-fitxa guztiak eskura izango dira aurki [www.soziolinguistika.org/bat](http://www.soziolinguistika.org/bat) helbidean. •

1. Ikus Argitalpen Batzordearen artikulua
2. Ikus II. Eranskina